

# Yasuni: eredia eta garaipena



**IÑAKI BARCENA  
HINOJAL**  
EKOLOGISTAK  
MARTXANEKO KIDEA

**Y**asuni: Ez da teleberrien eta komunikabie erraldioen berri printzipala izan baina... Joan den abuztuaren 20an Ekuadorko Errepublikako herriak (17,8 milioi biztanle) baietz borobila (%59 alde) eman zion kontsulta konstituzional batean, hauteskunde presidentzialekin batera, Yasuni Biosferaren Erreserban (1989an izendatua) petrolio gehiago ez erazteari. Kontutan hartzen badugu Ekuadorko sistema ekonomikoan petrolio delatua, nekazal produktuekin batera, egungo ekonomia-aren atal nagusia, erabaki hori oso esanguratsua dugu. Nola Ekuadorren? Iparretik hegoaldera Andeetako mendi eta sumendien lerroak bitan banatzen duen herrialdean, herri indigenak populazio osoaren %7 dira (kitxuak, shuar edo jibaroak, waoraniak, awak, chachiak eta abar...), eta 2008ko konstituzio berrian euren eskubideak babestuta agertzen dira. Konstituzio eredugarri horretan, lehengo aldiz mundu osoan, naturaren eskubideak ere jasotzen dira.

Duela hamar urte, Rafael Correa presidentea herri indigena eta gizarte mugimenduetatik sortutako Yasuni ITT nazioarteko inizatiba bertan behera utzi zuen, nazioarteko komunitatearen

Hor dugu irakaspen nagusia: borondate politiko sendoa, mobilizazio forma berriak, eta aliantza zabalak alderdi politikoaren eskema klasikoetatik kanpo, formula irabazle bihurtu dira

dirulaguntza eskasengatik, eta petrolio erazteko baimena eman zuen. Ekuadorko herri mugimendu eta komunitate indigenak ez ziren ados, eta orain onartutako kontsulta konstituzionalerako lanak hasi zituzten.

Yasunidos: 2013 eta 2023 bitartean Yasuniren aldeko kanpaina emankorra ez da gelditu, nahiz eta estatuaren instituzioetatik, Polizia zein botere judizial eta legegiletik, edota elite ekonomiko-

gandik erasoak etengabeak izan. Eta nire ustez hor dugu irakaspen nagusia: borondate politiko sendoa, erakuntza eta mobilizazio forma berriak, eta aliantza zabalak alderdi politikoaren eskema klasikoetatik kanpo, formula irabazle bihurtu dira. Yasunidosen lan ikaragarria hamarkada honetan garaipenaren gakoa izan da. Herri eta gizarte mugimenduen "mugimendu" ireki bat osatu dute, euren hitzetan: "Ideologia kapitalistak eta antropogenikoak ekarritako krisi ekosozialari eta aldaketa klimati-koari erantzuteko, bizitzaren defentsan bere forma guztietan eta parte hartze aktiboa sustatuz, erdiko ardatz politiko moduan". Eta oztopo eta kolpe latzen gainetik (errepresioa, mehatxuak, isunak, fake eta kontrakanpainak) helburua lortu dute. Orain, munduko bazter guztietatik eredu energetikoaren aldaketarako urrats garrantzitsu hau ezagutu eta jarraitu behar dugu.

Yasunizatu! Nnimmo Bassey, Nigeriako aktibista ekosozialistari aspaldian irakurri genion Yasuni ez zela Amazoniako eremu bat soilik. Handik sortutako ekimena petrolio lurpean uzteko planeta osoan aplikagarri eta eredugarria zela. Hala bedi! ●



17 euskaltegi, eskaintza zabala eta dirulaguntzak

## Euskarari baietz

Matrikulazio epea zabalik euskaltegietan!



**B**

**Bilbao**